

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1787

*377/2018 EBAZPENA, martxoaren 16koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendariarena, Jose Agustín Agirre Aramburu jauna Bilbo-Basurtu ESIko zuzendari mediko izendatzeko dena.*

Bilbo-Basurtu ESIko zuzendari medikoaren lanpostua betetzeko deialdia aztertu da; deialdi hura Zuzendaritza Nagusi honen otsailaren 5eko 167/2018 Ebazpenaren bidez egin zen, eta 2018ko otsailaren 28ko EHAA n argitaratu (42. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiak aurkeztutako agiriak aztertu dira, bai eta bere baldintza profesionalak jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak aztertuta, Jose Agustín Agirre Aranburu jauna deialdiko lanposturako egoia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Hori guztia dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.— Jose Agustín Agirre Aranburu jauna Bilbo-Basurtu ESIko zuzendari mediko izendatzea.

Bigarrena.— Izendapen honek 2018ko martxoaren 19tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.— Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea egongo da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 16a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.